



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriak 17**

**Vitoria-Gasteiz, 17 de octubre de 2023**

## Lehendakaritza

### **EUSKO JAURLARITZAK SAILEN ARTEKO MAHAI BAT SORTU DU EKIALDE HURBILEKO ETA ERTAINEKO GATAZKAREN ONDORIO HUMANITARIO ETA SOZIOEKONOMIKOEN INGURUAN**

- Gertakarien jarraipena, aurrea hartzea eta balorazioa egiteko esparru bat sortuko da, krisi humanitarioaren aurrean erantzunak bideratzeko eta gerta daitezkeen ondorio sozioekonomikoen aurrean neurriak baloratzeko.
- Eusko Jaurlaritzak gaitzetsi egiten du biztanleria zibilaren aurkako indarkeriako, terrorismoko edo gerrako ekintza oro, Nazio Batuen deialdiekin bat eginez, eta nazioarteko bitartekaritza eta konponbide negoziatuen alde egiten du.
- Sailen arteko mahaiaren lehen bilera urriaren 24an, asteartea, egingo da, 17:00etan, Lehendakaritzan. Bertan, UNRWA Errefuxiatu Palestinarrentzako Nazio Batuen Agentziak egindako “Iarrialdi-deialdirako” 500.000 euroko ekarpena egiteko erabakia hartuko da

Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak Ekialde Hurbilean eta Ertainean piztutako krisiaren inguruko lehen ekimenen berri eman du gaur Gobernu Kontseiluan. Lehenengo neurria “Ekialde Hurbileko eta Ertaineko gatazkaren ondorio humanitario eta sozioekonomikoen jarraipena egiteko Sailen arteko Mahaia” sortzea izango da. Egoeraren larritasuna eta gatazkaren bilakaerari edo eskualde edo nazioarteko balizko hedapenari buruzko ziurgabetasunak direla eta, Eusko Jaurlaritzak uste du beharrezkoa dela gertaeren jarraipena, aurrea hartzea eta balorazioa egiteko esparru hau aktibatzea.

Mahai honen helburuak bi dira: batetik, krisi humanitarioari aurre egiteko Euskaditik egin daitezkeen ekarpenak baloratzea eta bideratzea, eta, bestetik, gerta daitezkeen barneko ondorio sozioekonomikoei erantzuna ematea.

Erabaki honen abiapuntua da biztanleria zibilaren aurkako indarkeriako, terrorismoko edo gerrako ekintza oro gaitzestea, Nazioarteko Zuzenbidearekin eta Nazio Batuekin lerrokatzea, eta nazioarteko bitartekaritzarako eta konponbide negoziatuetarako deia eta laguntza ematea.

Bere funtzionamenduari dagokionez, Mahai honen koordinazioa eta dinamizazioa, hasiera batean, Lehendakaritzak eramango du (haren idazkaritza nagusien bidez), gertakarien bilakaeraren araberrako aldizkako deialdiekin. Osaerari dagokionez, Segurtasun, Gizarte Politika, Hezkuntza, Osasun, Enplegu, Jasangarritasun, Etxebizitza eta Ogasun arloetako eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariordeen arduradunak izango ditu. Mahaiaren lehen bilera datorren astean izango da, asteartean, urriak 24, 17:00etan, Lehendakaritzan.

Lehendakariak, halaber, Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio bilera horretan hartuko den lehen erabakia dela UNRWA Nazio Batuen Errefuxiatu Palestinarrentzako Agentziak egindako “hasierako larrialdi-deialdiari” erantzutea, gutxienez 100 milioi euro biltzeko, lehen 90 egunetako premia humanitarioei erantzutea helburu hartuta. Deialdi honi jarraituz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Lehendakariak 500.000 euroko baterako ekarpena egingo dute.

## Lehendakaritza

### EUSKO JAURLARITZAREN V. GAZTE PLANAK LEHENTASUNTZAT DU GAZTEEN EMANTZIPAZIOA BULTZATZEA

- **V. Gazte Planak gazteen emantzipazioa (*bizitzea*), garapena (*gozatzea*) eta eragina (*eraldetzea*) ditu ardatz**
- **4 ardatz estrategikotan, 15 esku-hartze arlotan, 33 helburutan eta 73 jarduketa-ildotan egituratzen da**
- **2023ko Plan Operatiboak 263 jarduketa aurreikusten ditu guztira, eta horietara 314 milioi euroko aurrekontua bideratu da**
- **Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 17 helburuetatik 12tan laguntzen du, eta kalitatezko hezkuntza, genero-berdintasuna, lan duina eta hazkunde ekonomikoa nabarmentzen dira**

Iñigo Urkullu Lehendakariak V. Gazte Plana aurkeztu du gaur Gobernu Kontseiluan. Plan horrek bildu egiten ditu Eusko Jaurlaritzak gazteen emantzipazioa bultzatzeko, haien garapena errazteko eta haien gizarte-eraldaketan inplikatzeko hartu dituen neurriak.

Gazte Plana Eusko Jaurlaritzaren zeharkako gazte-politika bultzatzeko tresna sendoa da 1999 ezkeror. V. Gazte Plan honen berritasuna da agertoki berri batean sartzen dela, 2022an Gazteriaren Legea onartu ondoren.

Plana gazteen emantzipazioarekiko kezka sakoneko testuinguru batean kokatzen da, eta horrek Eusko Jaurlaritzaren lehentasun estrategiko bihurtu du. Horren erakusgarri da 2023ko martxoan gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030 Euskal Estrategia onartu izana.

Emantzipatzeko batez besteko adina aurreratzea lotuta dago gazteen aukerekin, euskal gizartearen gaztetzearekin eta belaunaldi arteko eta barruko kohesioarekin, eta Eusko Jaurlaritzarentzat herrialde-helburua eta erabateko lehentasuna da.

Helburua da 2030ean gazteen emantzipazio-tasa % 50era hurbil dadin laguntzea. Hain zuzen, maila horretan kokatzen da EB-27ko batez bestekoa (% 50,6). Emantzipatzeko batez besteko adinari dagokionez, 28 urtetik beherakoa izatea da helburua.

Ildo horretatik, Gazte Plan berriak Eusko Jaurlaritzak gazte-politika integrala garatzeko eta gazteen emantzipazioa bultzatzeko politika berri bat sustatzeko hartutako konpromisoari erantzuten dio.

### Diagnostikoa eta erronkak

V. Gazte Planaren lanketa Euskadiko gazteei buruzko diagnostikoaren ondorioetatik abiatu da, IV. Planaren ebaluazio-txostenean identifikatutako

erronketatik, hain zuzen. Gazte Plana eta plana egiten parte hartu duten pertsona guztien ekarpenak.

Euskadiko gazteen egoeraren ezaugarri nagusiei erreparatuta, indargune hauek nabarmenduko ditugu: eskola-uzte goiztiarraren jaitsiera (% 4,8 2021ean), langabezia-tasaren jaitsiera (% 17,4 2021ean), erretzaileen jaitsiera (% 18,5), garraio publikoaren erabileraren igoera (% 59,33 2021ean) eta boluntariotzako jardueretako parte-hartze mailari eustea (% 11,5).

Hauek dira V. Gazte Planak dituen erronketako batzuk: gazteen enpleguaren kalitatea hobetzea; osasun mental positiboa bultzatzea, osasun fisikoa sustatzea ohitura osasungarriak hartuta, etxebizitza eskuratzeko; jasangarritasunerako eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako laguntza-politiken arloko ahaleginei eustea; aukera-berdintasunean, inklusioan eta aniztasunean aurrera egitea; gazteei zuzendutako eta/edo sortutako kultura-eskaintza bultzatzea; gazteek politika publikoen formulazioan gehiago parte har dezaten bultzatzea; eta arreta belaunaldien arteko orekan jartzea.

### **Gazte Planaren egitura**

Diagnostiko hori oinarri hartuta, V. Gazte Planak 4 ardatz estrategiko, 15 esku-hartze arlo, 33 helburu eta 73 jarduketa-ildo ditu.

- 1. ardatza: Emantzipazioa (bizitzea): enplegua, etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia.
- 2. ardatza: Garapena (gozatzea): osasun integrala, hezkuntza, kultura eta euskara, eta aisia eta denbora libre.
- 3. ardatza: Eragina (eraldatzea): parte-hartzea, berdintasuna, aniztasuna, bizikidetzeta eta klima-aldaketa.
- 4. ardatza: Behaketa eta koordinazioa: ezagutza eta lankidetzeta.

Egitura horren definizioa sailen arteko kontsulta-prozesu zabal baten emaitza da. Horri esker, gazte-politikaren orientazio estrategikoen egokitasuna baliozkotu da eta jarduera-esparru berriei buruzko ekarpenak txertatu dira. Beraz, helburu partekatuak biltzen ditu.

### **2023ko Programa Operatiboa**

Ardatz eta helburu nagusi horiek ekartzeko asmoz, 2023ko ekitaldiko Plan Operatiboa egin da. Plan horretan, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek eta V. Gazte Planean inplikaturako erakundeek aurten garatzen dituzten jarduerak jasotzen dira.

Plan Operatibo hau lantzeko, zuzendaritza bakoitzak gogoeta egin behar izan du gauzatu beharreko jarduketan multzoa, bideratutako aurrekontua, ebaluazio-adierazleak eta lortu beharreko helburua zehazteko garaian, jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.

2023ko Plan Operatiboak 263 jarduketa aurreikusten ditu guztira, eta 314.894.028 €-ko aurrekontua du.

Ardatza	Jarduketak		Aurrekontua	
1. ardatza: Emantzipazioa	91 jarduketa	% 34,6	232.295.362 €	% 73,8
2. ardatza: Garapena	89 jarduketa	% 33,8	46.206.926 €	% 14,7
3. ardatza: Eragina	46 jarduketa	% 17,5	33.337.500 €	% 10,5
4. ardatza: Behaketa	37 jarduketa	% 14,1	3.054.239 €	% 1,0

Emantzipazioaren ardatzean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: Lehen Aukera programa, gazte langabeak kontratatzeko; hezkuntza-mundurako edo ekintzailtzarako trantsizioa egiteko bekak; Global Training eta BEINT bekak; Gaztelagun programaren alokairua ordaintzeko laguntzak; eta Emantzipa laguntza berria, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazioa errazteko.

Gazteen garapenari dagokionez, honako hauek bildu dira: droga-kontsumoaren arriskuak prebenitzeko eta murrizteko jarduerak, haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurkako sentsibilizazioa, nazioarteko mugikortasunerako bekak edo esparru ez-formalean euskararen erabilera indartzeko programak.

Gainera, eraldaketa bat gertatzeko gazteen parte-hartze aktiboa behar duten arloetan, honako hauek sartzen dira: boluntariora-programak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko zerbitzu espezializatuak, LGTBI pertsonen laguntzeko ekintzak edo 2030 Eskola Agenda programa.

Azkenik, Gazte Planak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 17 helburuetatik 12tan laguntzen du, eta horien artean bereziki nabarmentzen dira kalitatezko hezkuntza, genero-berdintasuna, eta lan duina eta hazkunde ekonomikoa, helburu eta xede komun ugari dituztelako.

## Lana eta Enplegua

### **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK MERKATU ARRUNTEAN KONTRATATZEKO ZENBATEKOAK HANDITUKO DITUEN DEKRETUA ONARTU DA**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna ziurtatzeko programak eta zerbitzuak arautzen dituen dekretuari. Dekretu horrek merkatu arruntean kontratatzeko zenbatekoak handituko ditu, lanpostuak egokitzeko, eta babestu beharreko kolektiboak handituko ditu.

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, lan babestuaren formulari eragiten dion eta desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko funtsezkoa den dekretua berretsi da. Lan eta Enplegu Saila legealdi osoan bultzatzen ari den formula da, lana ematen dien pertsonen gizarte- eta lan-ohiturak hartzea errazten dielako, haien enplegarritasuna hobetzen duelako eta ohiko produkzio-sisteman sartzea errazten duelako. Dekretu honek egungo beharrei erantzun nahi die, eta aldaketa batzuk sartuko ditu gaur egun indarrean dagoenarekin alderatuta, 818/2021 Errege Dekretuan jasotako esparru komunera egokitzeko.

#### **Zenbatekoen igoera**

Berritasunen artean, zenbatekoak handitu dituzten laguntzak nabarmentzen dira:

- Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak. Zenbateko orokorra 4.000 eurotik 5.500 eurora igotzen da (6.000 euro kontratatutako pertsona emakumea edo 45 urtetik gorakoa bada).

Gainera, lehen jasota ez zeuden bi kasu berezi aurreikusten dira:

- 1) Hasierako kontratazio mugagabea, lanaldi osokoa, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten desgaituekin egiten denean, dirulaguntza 7.000 eurokoa izango da (7.500 euro kontratatutako pertsona emakumea edo 45 urtetik gorakoa bada).
  - 2) Hasierako kontratazio mugagabea, lanaldi osokoa, mugako adimengaitasuna duten pertsonen egiten bazaie (ofizialki gutxienez % 20ko adimen-desgaitasuna egiaztatzen dutenak eta % 33ra iristen ez direnak), 2.000 euroko dirulaguntza emango da.
- Lanpostuak egokitzeko eta oztupoak kentzeko laguntzak. Banakako egokitzapen-neurriak ezartzeko dirulaguntzaren zenbatekoa gehienez

1.800 eurokoa izango da egokitzapen hori egin zaion langile desgaitu bakoitzeko. Zenbateko hori 1.000 eurokoa zen gehienez.

- Desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak. Kasu honetan, lehen ez zegoen ñabardura bat sartu da: lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten desgaituak kontratatzen badira, dirulaguntza indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 55 izango da ( % 60 emakumea bada edo 45 urtetik gorakoa bada), lanaldi osorako kontratatutako langile bakoitzeko.

### **Babestu beharreko kolektiboak zabaltzea**

Era berean, lagundutako enplegu-jarduketetarako laguntzen programan zehaztu eta handitu egin dira babestu beharreko kolektiboak.

- % 33tik gorako desgaitasuna duten pertsonen artean, autismoa duten pertsonak dekretuaren 23. artikuluan zehaztuta daude, eta ez dute gaur egun pertsona horiei hainbeste kalte egiten dien anbiguotasunik eragiten.
- Mugako adimen-gaitasuna duten pertsonak sartzeko, 368/2021 Errege Dekretuan definitzen diren bezala (368/2021 Errege Dekretua, pertsona horiek enplegua lortzea sustatzeko ekintza positiboko neurriei buruzkoa), eta % 20tik gorako adimen-desgaitasuna dutenak, % 33ra iritsi behar izan gabe. Baldintza horrek, sarritan, oztopo bihurtzen du eta babesik gabe uzten ditu desgaitasun mota hori duten pertsona asko.



## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **EUSKO JAURLARITZAK MINERVA APLIKAZIO INFORMATIKOAREN ERABILERARI BURUZKO ESKUMEN GATAZKA POSITIBOAN ATZERA EGITEA ONARTU DU**

- **Bi exekutiboek irailean lortu zuten akordioa Aldebiko Batzordean, eta eskumen-desadostasunak konponduta utzi zituzten**

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Eusko Jaurlaritzak atzera egin dezan Espainiako Gobernuaren urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren aurkako eskumen-gatazka positiboan. Agindu hori Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzaten duten prozeduretan interes gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa da. Bi gobernuek, Estatuaren eta Euskadiren arteko Aldebiko Lankidetzaren Batzordean akordio bat lortu eta Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearekiko eskumen desadostasunak ebatzi ondoren eman da ukoa. Lege hori da, hain zuzen ere, dagokion Aginduaren garapen-esparrua.

Espainiako Gobernuak Zerga Administrazioari Estatu Agentziaren (ZAEA) aplikazio bat ezarri nahi zion Euskal Autonomia Erkidegoari, dirulaguntzak eta kontratuak izapidetzean interes gatazkak izateko arriskua aztertzeko. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren ustez, Minerva izeneko tresna informatiko horrekin urratu izango ziren euskal eskumenak, Estatuak inposatu egiten baitzituen.

Irailean Bitariko Batzordean lortutako eta 2023ko urriaren 10ean argitaratutako akordioaren ondoren, Minerva tresna informatikoa Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia programetarik eratorritako administrazio eta dirulaguntza prozeduretan baino ez da erabiliko. Prozedura hori 2023rako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarrian arautzen da, eta aipatutako Aginduan garatzen da. Eta hori guztia Konstituzioaren 1. xedapen gehigarria errespetatuz eta aplikazio informatikoa erabiltzeko baldintzak adostuko dituen hitzarmen bat ezartzearen baldintzapean.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **FORU ALDUNDIEN BULTZADA EKONOMIKOA GAZTERIAREN ARTEAN INDARKERIA PREBENITZEKO BELDUR BARIK PROGRAMARI**

Gobernu Kontseiluak gazteriaren artean emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko Beldur Barik erakunde arteko programaren garapenerako eta finantziarako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta EAEko hiru foru aldundien arteko hiru hitzarmen baimentzea onartu du. Emakundek antolatzen du eta koordinatzen du programa eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zein EUDEL-en babes eta laguntza jasotzen du.

Gaur hiru foru aldundiekin sinatu beharreko hitzarmena egiteko baimena onartu da, zeinaren bitartez Bizkaiko Foru Aldundiak 35.000 euro jarriko ditu, Gipuzkoako aldundiak 23.500 eta Arabakoak 12.000 euro. Emakundek 79.949 euroekin finantzatzen du programa, bai programaren laguntza teknikoarentzat zein kanpainetarako.

Beldur Barik lehiaketa programaren ekintza nagusienetako bat da. Lehiaketa 12 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzendua dago, eta neska-mutilek ezberdintasun egoerei Beldur Barik jarrerarekin nola egiten dieten aurre erakutsi behar duten adierazpen artistikoak saritzen ditu; alegia, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, elkarkidetzeta eta indarkeria sexista eta matxistaren bazterketa irmoa adierazten dituzten jarrerak.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **GOBERNU KONTSEILUAK ARGI BERDEA EMAN DU BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIN SOTA FAMILIAREN ETA "SOTA Y AZNAR" ONTZI- ENPRESAREN ARTXIBOAREN INGURUAN HITZARMEN BAT SINATZEKO**

- **Hitzarmen honen bidez, Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibilak eta frankismoak zatitutako Sota familiaren artxiboa berregiteko konpromisoari eusten zaio**

Gobernu Kontseiluak onespena eman dio Sota familiaren eta “Sota y Aznar” ontzi-enpresaren artxiboa berreraiki, katalogatu, digitalizatu eta zabaltzea helburua bilatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatuko den hitzarmenari. [Urte hasieran Sota familiak Euskadiko Artxibo Historikoaren esku](#) utzi zituen beren funtsen zati handi bat. Hitzarmen honi esker, Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dauden funtsak Euskadiko Artxibo Historikoan digitalizatu eta zabalduko dira.

Urte hasieran egindako ekitaldian Lehendakariak berak eta Bingen Zupiria sailburuak funts hauen balio “historikoa” nabarmendu zuten. Honez gain, gerra zibilaren eta frankismoaren ondorioz sakabanatuta geratu ziren artxiboak berreskuratzea ondare historikoaren kontua dela, eta memoria demokratikoaren eta justizia demokratikoaren gaia ere badela azpimarratu zuen Lehendakariak. Egun hartan hartutako konpromisoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak gainerako erakunde gordailuzainekin, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Sabino Arana Fundazioarekin, lankidetzan aritu da Gerra Zibilak eta frankismoak zatitu zuten artxiboa berregiteko. Hitzarmen honi esker Sota familiaren eta “Sota y Aznar” ontzi-enpresaren funtsak berreraikiko dira Euskadiko Artxibo Historikoan.

Hitzarmen honen bidez, Sota familiaren eta “Sota y Aznar” ontzi-enpresaren artxibo-funtsak formatu irekian katalogatu eta digitalizatuko dira artxibo-sistamarako indarrean dauden arauen arabera. Ostean, katalogoaren eta hari lotutako irudi digitalen zabalkundea Dokuklik atarian izango da eskuragarri. Bestalde, lřankidetzeta-hitzarmen honek ez du aldean arteko kontraprestazio ekonomikorik ekarriko.

## Presidencia

### **EL GOBIERNO VASCO CREA UNA MESA INTERDEPARTAMENTAL SOBRE LAS CONSECUENCIAS HUMANITARIAS Y SOCIOECONÓMICAS DEL CONFLICTO EN ORIENTE PRÓXIMO Y MEDIO**

- **Se creará un marco de seguimiento, anticipación y valoración de los acontecimientos para encauzar respuestas ante la crisis humanitaria y valorar medidas frente a los efectos socioeconómicos que puedan producirse**
- **El Gobierno Vasco condena toda acción violenta, terrorista o de guerra contra la población civil alienándose con los llamamiento de las Naciones Unidas y apoya la mediación internacional y las soluciones negociadas**
- **La primera reunión de la mesa interdepartamental se celebrará el martes, 24 de octubre, a las 17:00h en Lehendakaritza, donde se adoptará la decisión de aportar 500.000 euros al “Llamamiento de emergencia” que ha realizado la Agencia de Naciones Unidas para los refugiados palestinos UNRWA**

El Lehendakakari, Iñigo Urkullu Renteria, ha informado hoy en el Consejo de Gobierno sobre la adopción de las primeras iniciativas en relación con la crisis desatada en Oriente Próximo y Medio. La primera de las medidas será la creación de una “Mesa Interdepartamental de Seguimiento de las consecuencias humanitarias y socioeconómicas del conflicto en Oriente Próximo y Medio”. Ante la gravedad de la situación y las incertidumbres sobre la evolución del conflicto o su eventual extensión regional o internacional, el Gobierno Vasco cree necesario activar este marco de seguimiento, anticipación y valoración de los acontecimientos.

Los objetivos de esta mesa son dos: por una parte, valorar y encauzar las contribuciones que, desde Euskadi, puedan articularse frente a la crisis humanitaria, y por otra, plantear en su caso respuestas a los efectos socioeconómicos internos que pudieran producirse.

El punto de partida para esta decisión es la condena de toda acción violenta, terrorista o de guerra contra la población civil, el alineamiento con el Derecho Internacional y con Naciones Unidas, y el llamamiento y apoyo a la mediación internacional y a las soluciones negociadas.

En cuanto a su funcionamiento, la coordinación y dinamización de esta Mesa se realizará inicialmente desde Lehendakaritza (a través de sus Secretarías Generales) con convocatorias periódicas en función de la evolución de los acontecimientos. En cuanto a su composición, incluirá responsables a nivel de viconsejeros o viceconsejeras de las siguientes áreas: Seguridad, Políticas Sociales, Educación, Salud, Empleo, Sostenibilidad, Vivienda y Hacienda, así como de la Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo.

La primera reunión de la mesa está prevista para la próxima semana, con un encuentro el martes, 24 de octubre, a las 17:00h en Lehendakaritza.

El Lehendakari ha informado también al Consejo de Gobierno que la primera decisión que se adoptará en esta reunión es la de responder al “Llamamiento de emergencia inicial” realizado por la Agencia de Naciones Unidas para los refugiados palestinos UNRWA para recaudar fondos por, al menos 100 millones de euros, para responder a las necesidades humanitarias de los primeros 90 días. Siguiendo este llamamiento, la Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo y Lehendakaritza realizarán una contribución conjunta de 500.000 euros.

## Presidencia

### EL V. PLAN JOVEN DEL GOBIERNO VASCO TIENE COMO PRIORIDAD FAVORECER LA EMANCIPACIÓN JUVENIL

- El V. Plan Joven – Gazte Plana se centra en la emancipación (*vivir*), el desarrollo (*disfrutar*) y la incidencia (*transformar*) de las personas jóvenes
- Se estructura en 4 ejes estratégicos, 15 áreas de intervención, 33 objetivos y 73 líneas de actuación
- El Plan Operativo de 2023 contempla un total de 263 actuaciones para las cuales se destina un presupuesto de 314 millones de euros
- Contribuye a 12 de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas, destacando la educación de calidad, la igualdad de género, y el trabajo decente y crecimiento económico

El Lehendakari, Iñigo Urkullu, ha presentado hoy en Consejo de Gobierno el V. Gazte Plana – Plan Joven que aglutina las medidas del Gobierno Vasco para impulsar la emancipación juvenil, facilitar el desarrollo de las personas jóvenes e involucrarlas en la transformación social.

El Gazte Plana constituye desde 1999 una herramienta consolidada para el impulso de una política transversal de juventud del Gobierno Vasco. La novedad de este V. Gazte Plana es que se inscribe en un nuevo escenario, una vez aprobada la Ley de Juventud en 2022.

El Plan se enmarca en un contexto de profunda preocupación por la emancipación de la juventud, lo que la ha convertido en una prioridad estratégica del Gobierno Vasco. Prueba de ello es la aprobación en marzo de 2023 de la Estrategia Vasca 2030 para favorecer la emancipación juvenil.

El adelanto de la edad media de emancipación está vinculado a las oportunidades de las personas jóvenes, el rejuvenecimiento de la sociedad vasca y la cohesión inter e intrageneracional, y es un objetivo de país y una prioridad de primer orden para el Gobierno Vasco.

La meta es contribuir a que en el horizonte de 2030 la tasa de emancipación de las personas jóvenes se aproxime al 50%, nivel en que se sitúa la media de la UE-27 (50,6%). En términos de edad media de emancipación, el objetivo es situarla por debajo de los 28 años.

En ese sentido, el nuevo Gazte Plana responde al compromiso adquirido por el Gobierno Vasco de desarrollar una política integral de juventud y promover una nueva política para favorecer la emancipación juvenil.

## Diagnóstico y retos

La elaboración del V. Gazte Plana ha partido de las conclusiones del diagnóstico sobre la juventud de Euskadi, los retos identificados en el informe de evaluación del IV. Plan Joven y las aportaciones de todas las personas participantes en su elaboración.

Atendiendo a los principales rasgos de la situación de la juventud en Euskadi, destacaremos como fortalezas el descenso del abandono escolar prematuro (4,8% en 2021), el descenso de la tasa de paro (17,4% en 2021), el descenso de personas fumadoras (18,5%), el aumento del uso del transporte público (59,33 en 2021), y el mantenimiento del nivel de participación en actividades de voluntariado (11,5%)

Mejorar la calidad del empleo de las personas jóvenes, favorecer una salud mental positiva, promover la salud física a través de la adopción de hábitos saludables, sostener los esfuerzos en materia de políticas de apoyo al acceso a la vivienda, la sostenibilidad y la lucha contra el cambio climático, avanzar en la igualdad de oportunidades, la inclusión y la diversidad, impulsar una oferta cultural creada y/o dirigida a la juventud, propiciar una mayor participación de la juventud en la formulación de las políticas públicas y poner el foco en el equilibrio intergeneracional son algunos de los retos que afronta el V. Gazte Plana.

### **Estructura del Gazte Plana**

Tomando como base este diagnóstico, el V. Gazte Plana se estructura en 4 ejes estratégicos, 15 áreas de intervención, 33 objetivos y 73 líneas de actuación.

- Eje 1: Emancipación (vivir): empleo, vivienda, renta, cohesión y resiliencia.
- Eje 2: Desarrollo (disfrutar): salud integral, educación, cultura y euskera, y ocio y tiempo libre.
- Eje 3: Incidencia (transformar): participación, igualdad, diversidad, convivencia, y cambio climático.
- Eje 4: Observación y coordinación: Conocimiento y colaboración.

La definición de esta estructura es el resultado de un amplio proceso de consulta entre los distintos Departamentos, que ha permitido validar la pertinencia de las orientaciones estratégicas de la política de juventud e incorporar aportaciones sobre nuevos ámbitos de actuación, y, por tanto, aglutina objetivos compartidos.

### **Programa Operativo 2023**

Con el objetivo de aterrizar estos ejes y objetivos principales, se ha elaborado el Plan Operativo correspondiente al ejercicio 2023 en el que se recogen las actuaciones que se vienen desarrollando durante este año por las distintas Direcciones del Gobierno Vasco y entidades implicadas en el V. Plan Joven.

La elaboración de este Plan Operativo ha supuesto una reflexión por parte de cada Dirección a la hora de definir el conjunto de actuaciones a ejecutar, el presupuesto destinado, así como sus indicadores de evaluación y meta a alcanzar, de manera que pueda realizarse su seguimiento y evaluación.

El plan operativo 2023 contempla un total de 263 actuaciones con un presupuesto de 314.894.028 €.

Eje	Actuaciones		Presupuesto	
Eje 1: Emancipación	91 actuaciones	34,6%	232.295.362 €	73,8%
Eje 2: Desarrollo	89 actuaciones	33,8%	46.206.926 €	14,7%
Eje 3: Incidencia	46 actuaciones	17,5%	33.337.500 €	10,5%
Eje 4: Observación	37 actuaciones	14,1%	3.054.239 €	1,0%

En el eje de Emancipación debemos destacar el programa Lehen Aukera destinado a la contratación de personas jóvenes desempleadas, las becas para la transición educativa al mundo laboral o al emprendizaje, las becas Global Training y BEINT, así como las ayudas al pago del alquiler del Programa Gaztelagun, y la nueva ayuda Emantzipa para facilitar la emancipación de jóvenes entre 25 y 29 años.

En cuanto al desarrollo de las personas jóvenes, se engloban actuaciones de prevención y reducción de riesgos del consumo de drogas, de sensibilización contra la violencia ejercida hacia niños, niñas y adolescentes, becas de movilidad internacional, o programas para fortalecer el uso del euskera en el ámbito no formal.

Además, en aquellas áreas que requieren la participación activa de las personas jóvenes para que se produzca una transformación, se incluyen programas de voluntariado, servicios especializados de atención a mujeres víctimas de violencia de género, acciones de apoyo a personas LGTBI o el programa de Agenda escolar 2030.

Finalmente, el Gazte Plana contribuye a 12 de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas, entre los que destacan especialmente la educación de calidad, la igualdad de género, y el trabajo decente y crecimiento económico, por su alto número de objetivos y metas comunes.



## Trabajo y Empleo

### **APROBADO EL DECRETO QUE INCREMENTARÁ LAS CUANTÍAS PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD EN EL MERCADO ORDINARIO**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde al decreto que regula los programas y servicios destinados a asegurar la empleabilidad de las personas con discapacidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Este decreto incrementa cuantías para la contratación en el mercado ordinario, para la adaptación de puestos de trabajo, y amplía los colectivos a proteger.

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, se ha ratificado un decreto que afecta a la fórmula del trabajo protegido y que es fundamental para la integración laboral de las personas con discapacidad. Se trata de una fórmula que desde el Departamento de Trabajo y Empleo se lleva impulsando toda la legislatura porque facilita la adquisición de hábitos sociales y de trabajo a las personas a las que da ocupación, mejora su empleabilidad y facilita su incorporación al sistema productivo ordinario. Este decreto trata de responder a las necesidades actuales e introduce una serie de modificaciones respecto al actualmente vigente que tienen por objetivo adaptarse al marco común recogido en el Real Decreto 818/2021.

#### **Incremento de las cuantías**

Entre las novedades destacan ayudas cuyas cuantías se han visto incrementadas:

- Ayudas al fomento del empleo de personas con discapacidad en el mercado ordinario de trabajo. La cuantía con carácter general pasa de 4.000 euros a 5.500 euros (6.000 euros si la persona contratada es mujer o mayor de 45 años).

Además, se prevén dos casos especiales que antes no estaban contemplados:

- 1) Cuando la contratación indefinida inicial, a tiempo completo, sea con personas con discapacidad que presentan mayores dificultades de acceso al mercado de trabajo la subvención será de 7.000 euros (7.500 euros si la persona contratada es mujer o mayor de 45 años).
- 2) Cuando la contratación indefinida inicial, a tiempo completo, sea con personas con capacidad intelectual límite (aquellas que acrediten oficialmente al menos un 20% de discapacidad intelectual y que no alcancen el 33%), la subvención será de 2.000 euros.

- Ayudas para la adaptación de puestos de trabajo y la eliminación de barreras. La cuantía de la subvención por la implantación de medidas de adaptación individual será de un máximo de 1.800 euros por cada persona trabajadora con discapacidad para la que se haya realizado dicha adaptación. La cuantía anterior era de un máximo de 1.000 euros.
- Ayudas al mantenimiento de puestos de trabajo de personas con discapacidad. En este caso se incluye la matización, inexistente anteriormente, de que en el caso de que la contratación fuera de personas con discapacidad con mayores dificultades de acceso al mercado de trabajo, la subvención será del 55% del salario mínimo interprofesional vigente (60% si es mujer o mayor de 45 años), por cada trabajador o trabajadora contratada a jornada completa.

### **Ampliación de colectivos a proteger**

Asimismo, en el programa de las ayudas a las actuaciones de empleo con apoyo se han matizado y ampliado los colectivos a proteger.

- Dentro de las personas con una discapacidad superior al 33%, las personas con autismo están explicitadas en el artículo 23 del decreto, no dando lugar a la ambigüedad que tanto perjudica laboralmente a estas personas en la actualidad.
- Se incluyen las personas con capacidad intelectual límite, tal y como se definen en el Real Decreto 368/2021 sobre medidas de acción positiva para promover el acceso al empleo de estas personas, y que tengan una discapacidad intelectual superior al 20%, sin tener que alcanzar el 33%, requisito que, frecuentemente, hace de barrera y deja desamparadas a muchas personas con este tipo de discapacidad.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### **EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL DESISTIMIENTO EN EL CONFLICTO POSITIVO DE COMPETENCIAS CON EL GOBIERNO ESPAÑOL SOBRE LA UTILIZACIÓN DEL APLICATIVO INFORMÁTICO MINERVA**

- **Ambos ejecutivos alcanzaron en septiembre un acuerdo en la Comisión Bilateral y dejaron solventadas sus discrepancias competenciales**

El Consejo de Gobierno ha autorizado el desistimiento del Gobierno Vasco en el conflicto positivo de competencias contra la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, del Gobierno español relativa al análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. La renuncia se produce una vez que ambos gobiernos han alcanzado un acuerdo en la Comisión Bilateral de Cooperación Estado-Euskadi y han dirimido sus discrepancias competenciales en relación con la Ley 31/2022, de Presupuestos Generales del Estado, Ley que supone el marco de desarrollo de la Orden en cuestión.

El Gobierno español pretendía imponer a la Comunidad Autónoma de Euskadi el uso de un aplicativo de la Agencia Estatal de Administración Tributaria (AEAT) para realizar el análisis del riesgo de conflicto de intereses en la tramitación de subvenciones y contratos. El Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno entendía que con esta herramienta informática conocida como Minerva se hubieran vulnerado las competencias vascas, ya que se producía una imposición por parte del Estado.

Tras el acuerdo alcanzado en septiembre en la Comisión Bilateral y publicado el 10 de octubre de 2023, la herramienta informática Minerva solo se utilizará en los procedimientos administrativos y subvencionales derivados de los programas de Recuperación, Transformación y Resiliencia, regulada en la disposición adicional centésima décima segunda de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023 y desarrollada en la mencionada Orden. Y todo ello respetando la Disposición Adicional 1ª de la Constitución y condicionado al establecimiento de un convenio en el que se acordarán las condiciones de uso del aplicativo informático.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### **APOYO ECONÓMICO DE LAS DIPUTACIONES AL PROGRAMA BELDUR BARIK PARA LA PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA ENTRE JÓVENES**

El Consejo de Gobierno ha aprobado autorizar la suscripción de tres Convenios de Colaboración de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer con las diputaciones de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba para el desarrollo y cofinanciación del programa interinstitucional Beldur Barik de prevención de la violencia contra las mujeres dirigida a la juventud.

El programa está organizado y coordinado por Emakunde, cuenta con el apoyo de las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, y EUEDEL. Hoy se ha autorizado la suscripción de los convenios a través de los que la Diputación de Bizkaia aportará 35.000 euros, la Diputación de Gipuzkoa aportará 23.500 euros y la Diputación de Araba 12.000 euros. Emakunde, por su parte, financia el programa con 79.949 euros, tanto para la asistencia técnica del programa como para las campañas relacionadas con el mismo.

El concurso Beldur Barik es una de las acciones principales del programa. El certamen está dirigido a jóvenes de entre 12 y 20 años y premia las expresiones artísticas que muestran cómo chicas y chicos afrontan las situaciones de desigualdad con actitud Beldur Barik, es decir, con actitudes que expresen respeto, paridad, libertad y autonomía, solidaridad y un firme rechazo a la violencia sexista.

## Cultura y Política Lingüística

### EL CONSEJO DE GOBIERNO DA LUZ VERDE A LA FIRMA DE UN CONVENIO CON LA DIPUTACIÓN DE BIZKAIA SOBRE EL ARCHIVO DE LA FAMILIA SOTA Y LA NAVIERA "SOTA Y AZNAR"

- **Mediante este convenio se mantiene el compromiso del Gobierno Vasco de reconstruir el archivo de la familia Sota dividido por la Guerra Civil y el franquismo**

El Consejo de Gobierno ha dado su aprobación al convenio que se firmará con la Diputación Foral de Bizkaia cuyo objetivo es la reconstrucción, catalogación, digitalización y difusión del archivo de la familia Sota y de la naviera "Sota y Aznar".

A principios de año [la familia Sota puso a disposición del Archivo Histórico de Euskadi gran parte de sus fondos](#). En virtud del presente convenio, los fondos que obran en poder de la Diputación Foral de Bizkaia se digitalizarán y difundirán en el Archivo Histórico de Euskadi.

En el acto celebrado a principios de año el propio Lehendakari y el consejero Bingen Zupiria destacaron el valor "histórico" de estos fondos. Además, el Lehendakari subrayó que la recuperación de los archivos que quedaron dispersos por la guerra civil y el franquismo es una cuestión de patrimonio histórico y también es un asunto de memoria democrática y de justicia democrática. Siguiendo el compromiso adquirido aquel día, el Gobierno Vasco ha colaborado con el resto de entidades depositarias, la Diputación Foral de Bizkaia y la Fundación Sabino Arana, en la reconstrucción del archivo dividido por la Guerra Civil y el franquismo. En virtud de este convenio se reconstruirán los fondos de la familia Sota y de la naviera "Sota y Aznar" en el Archivo Histórico de Euskadi.

Mediante el presente convenio, los fondos de archivo de la familia Sota y de la naviera "Sota y Aznar" serán catalogados y digitalizados en formato abierto de acuerdo con las normas vigentes para el sistema de archivo. Posteriormente, la difusión del catálogo y de las imágenes digitales asociadas estará disponible en el portal Dokuklik. Por otra parte, el presente convenio de colaboración no conllevará contraprestación económica entre las partes.